# Euskal AEko apartamentu turistikoetako gaualdiak %27,1 gehitu dira 2018ko uztailean

## *Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera harturik, %5,1eko gehikuntza izan da gaualdietan uztailean*

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gaualdiak 2018ko uztailean 39.175 izan ziren, 2017ko uztailekoen aldean +%27,1.

Gaualdiak gehitu dira, urte batetik bestera, hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %55,2 igo dira, Araban %34,9 eta Bizkaian %5,8.

Bestela ere, 2018ko uztailean 10.678 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko apartamentu turistikoetan, +%23,9. Lurraldeka, bidaiari-sarrerek gora egin dute bai Araban, %84,9, bai Gipuzkoan, %51,8, baina, aldiz, behera egin dute Bizkaian %4,9.

### Tabla 1.- Pernoctaciones, entradas y estancia media en los apartamentos turísticos de la C.A. de Euskadi. Julio 2018

| | Pernoctaciones | | Entradas | | Estancia media | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 07/2018 | m/m-12 (%) | 07/2018 | m/m-12 (%) | 07/2018 | 07/2017 |
| **C.A. DE EUSKADI** | **39.175** | **27,1** | **10.678** | **23,9** | **3,67** | **3,58** |
| Estatales | 25.475 | 30,6 | 6.490 | 33,8 | 3,93 | 4,02 |
| Extranjeros | 13.700 | 21,1 | 4.188 | 11,2 | 3,27 | 3,00 |
| **ARABA/ÁLAVA** | **8.800** | **34,9** | **1.983** | **84,9** | **4,44** | **6,08** |
| Estatales | 7.492 | 34,0 | 1.567 | 84,2 | 4,78 | 6,57 |
| Extranjeros | 1.308 | 40,2 | 416 | 87,6 | 3,14 | 4,21 |
| **BIZKAIA** | **15.712** | **5,8** | **4.625** | **-4,9** | **3,40** | **3,05** |
| Estatales | 9.919 | 13,2 | 2.918 | 6,0 | 3,40 | 3,18 |
| Extranjeros | 5.793 | -4,9 | 1.707 | -19,1 | 3,39 | 2,89 |
| **GIPUZKOA** | **14.663** | **55,2** | **4.070** | **51,8** | **3,60** | **3,52** |
| Estatales | 8.064 | 56,3 | 2.005 | 60,6 | 4,02 | 4,13 |
| Extranjeros | 6.599 | 54,0 | 2.065 | 44,1 | 3,20 | 2,99 |

**Fuente: Eustat. Encuesta de establecimientos turísticos receptores**

Batez besteko egonaldia, uztailean, 3,67 egunekoa izan da, luzeagoa 2017ko uztaileko 3,58 egunekoa baino. Araban iragan urteko 6,08 egunetik aurtengo uztaileko 4,44ra laburtu da; Bizkaian 3,05etik 3,40ra luzatu da; azkenik, Gipuzkoan ere luzatu da, 2017ko uztaileko 3,52tik aurtengo uztaileko 3,60ra.

## *2018ko uztaileko turista-balantzea*

**Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera,** 355.930 sarrera erregistratu dira 2018ko uztailean, %3,2ko gehikuntza aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien %46,5 kontzentratu da, eta lurraldeak izan dituen sarrerak %3,8 hazi dira. Gipuzkoan erkidegoko sarreren %39,3 izan dira, %4,6ko gehikuntzarekin. Arabak erkidegoko sarreren %14,2 izan ditu, eta %2,4 jaitsi dira.

Gaualdiak, establezimendu hartzaile guztietan, %5,1 hazi dira. Araban jaitsi dira %1,0, baina Gipuzkoan eta Bizkaian gehitu dira %7,4 eta %3,8, hurrenez hurren.

**Tabla 2.- Pernoctaciones y entradas en hoteles, alojamientos rurales y apartamentos de la C.A. de Euskadi. Julio 2018**

| | Pernoctaciones | | Entradas | |
|---|---|---|---|---|
| | 07/2018 | m/m-12 (%) | 07/2018 | m/m-12 (%) |
| **C.A. DE EUSKADI** | **768.305** | **5,1** | **355.930** | **3,2** |
| Araba/Álava | 97.803 | -1,0 | 50.741 | -2,4 |
| Bizkaia | 339.978 | 4,8 | 165.349 | 3,8 |
| Gipuzkoa | 330.524 | 7,4 | 139.840 | 4,6 |

**Fuente: Eustat. Encuesta de establecimientos turísticos receptores**

***Informazio gehiagorako:***
*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*
*Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*
*Prentsa-zerbitzua: serviciopprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62*